



ATZEGI

BABES FUNDAZIOA
FUNDACIÓN TUTELAR

Memoria 2020



ATZEGI

babes fundazioa

Atzegi Babes Fundazioak, desgaitasun intelektualala edo garapenekoak duten pertsonak, adin nagusikoak eta babesgabetasun-egoeran daudenak laguntzen ditu.

Laguntza horiek gaitasun juridikoa aldatzeko prozesu baten ondoren ezartzen dira. Prozesu horretan, pertsona bakoitzak dituen behar eta nahien aurrean, epaileak erabakitzen du pertsona honek zer laguntza behar dituen. Laguntza hauek proportzionalak izan daitezen saiatzen da epailea, bere bizitza pertsonalean edo ondarean erabakiak hartzen laguntzeko eta bere bizi-proiektua lortzeko laguntza emateko babesa eskainiz.

Taldean egiten dugu lan, hurbiltasunez, konpromisoz, gardentasunez eta konfiantzaz.

« Laguntza ematen diogun pertsona da garrantzitsuena. »

www.atzegibabesfundazioa.eus




2020a, COVID-19ren pandemiak eragin handia izan duen urtea izan da. Egoera honek, gure “modusoperandi” edo egiteko modua osasun-jarraibide eta gomendioetara egokitzea ekarri du. Gainera, tutelatutako pertsonak joaten diren zerbitzuetatik uneoro jaso dugun laguntza, azpimarratzekoa izan da.

Gure jarduera-eremua lurralde historikoaren baitakoa da eta horregatik, Gipuzkoara mugatzen da gure lana (Palentzian bizi den pertsona bat izan ezik). Babes egoeran dauden pertsonen bizileku-egoera, askotarikoa da eta artatzen ditugun pertsonen profila eta egoeraren nondik norakoa erakusten du honek. Batzuk, behar eta dependentzia asko dutenak dira eta egoitzetan edo ospitaleetan bizi diren pertsonak dira hauek, baina badira autonomia handiagoa duten eta elkarbizitza unitate, etxebizitza babestuetan edo beren kasa bizi diren pertsonak ere.

Erakunde ezberdinekin dihardugu lankidetzan: Atzegi, Gautena, Aspace, Goyeneche Fundazioa, Uliazpi Fundazioa, Aita Menni, Gureak, etab. Erakunde hauek kudeatzen dituzten baliabideen erabiltzaileak dira Babes Fundazioaren tutelatu asko. Horregatik, asko eskertzen dugu erakunde hauen guztien konpromiso eta dedikazioa.

Etxebizitza baliabidearen araberako grafikoa





Gure

Baloreak

- ✓ Konfiantza eta gertutasuna
- ✓ Pertsonalizazioa
- ✓ Duintasuna eta errespetua
- ✓ Konpromisoa
- ✓ Gardentasuna
- ✓ Kalitate eta berrikuntza

“Gure laguntzak dimentsio pertsonal batetik lantzen ditugu, pertsona bakoitzaren nahietara eta beharretara egokituz”

Datuetan


2020an, 169 pertsoneri eman diegu laguntza eta arreta.

- 134 pertsonen tutoretza/kuradoretza du Atzegi Babes Fundazioak.
- 9 pertsonekin beste izendapen juridikoa du Atzegi Babes Fundazioak (defendatzaile judizialak, administratzaile judizialak, zaintzaileak).
- 26 pertsona ditu Atzegi Babes Fundazioak, pretutela edo balorazioan.

2020an, 4 baja izan dira heriotzagatik, horietako bat COVID-19ak eragindakoa.


Babes fundaziotik laguntza ematen diegun pertsonak

■ Tutelak ■ Kuratelak ■ Beste figurak ■ Pretutelak




Nori laguntzen diogun

1983ko abenduaren 28an, Babes Fundazioa sortu zenetik, pixkanaka pixkanakahandituz joan da Gipuzkoan babesgabetasun-egoeran zeuden eta laguntza eman diegun pertsonen kopurua. Bilakaera hori grafikoan ikus dezakegu:




Generoa



■ Gizonezkoak ■ Emakumezkoak

Adina



■ 18-40 urte ■ 41-65 urte
■ 65 baina gehiago

Gure lana

Babes Fundazioak duen zeregin nagusia, Gipuzkoan adimen- edo garapen- desgaitasuna duten pertsoneri laguntza eman eta hauen gaitasunean osagarri izatea da. Horretarako, behar dituzten laguntzak ematen ditu Babes Fundazioak.

Kasu bakoitzean, autonomia sustatzeko helburuarekin, pertsona hauen eskubideak errespetatu eta gizartean besteen baldintza berberetan parte hartzea oinarri duen ikuspegiarekin egiten du du lan.

Gure lan taldea honako hauek osatzen dute:

- » **14 patrono**
- » **Babes Fundazioko 10 profesional**
- » **Fundazioak berak kontratatutako kanpo-zerbitzuetarako profesionalak**
- » **44 boluntario**

Desgaitasuna duten pertsoneri erabakiak hartzeko laguntza emateaz gain, informazio eta aholkularitza lanak eta gizarte sentsibilizazio lanak ere egiten ditugu desgaitasuna duten pertsona, senide eta gure jardun eremu bera duten erakunde eta elkarteekin.

“Axola diozun norbait izatea”



**Pertsona ardatzean dagoen
plangintzan oinarritutako
ikuspegiarekin egiten dugu lan.**

Nor arduratuko da nire seme alabaz ni ez nagoenean?

Urte honetan, 6 konpromiso berri sinatu dira adimen- edo garapen-urritasuna duten pertsonen senide eta Atzegi Babes Fundazioaren artean, persona hauen senitartekoak falta direnerako. Honako hauekin sinatu dira etorkizun konpromisoak: 3 familiekin Donostian, 2 familiekin Lazkaon eta familia batekin Legazpin. Guztira, Gipuzkoako 36 familiek dute sinatuta **etorkizunerako konpromisoa**.



Etengabeko hobekuntza

Babes Fundazioak eskaintzen dituen laguntzak ahalik eta modu eraginkorrenean eskaini ahal izateko eta urte honetan eman diren ikastaro telematikoak aprobetxatuz, Fundazioko profesionalen eta arduradunaren taldeak hainbat prestakuntza-jardunalditan parte hartu du, besteak beste:

- ✓ **Gaixotasun mentala duten pertsonekin, diziiplina anitzeko eremuan esku hartze sozialeko ikastaroa.**
- ✓ **Jokabide positiboen laguntza sensibilizazioa.**
- ✓ **Ausartentzako etika.**
- ✓ **Pandemia egoerarako dolu eta laguntzarako gakoak.**
- ✓ **Zahartzen ari diren planei, laguntza profesionalak emateko gakoak.**
- ✓ **Road to Employment for Persons with Disabilities.**
- ✓ **Babes boluntaritzako oinarrizko prestakuntza.**
- ✓ **Fiskalitatea Euskadin.**



Boluntariotza babes fundazioan


Gure tutoretza-ereduan Babes Boluntarioen parte-hartzea ere ezinbestekoa da.

Boluntarioek aktiboki parte hartzen dute Fundazioaren misioan, tutelatutako bakoitzarekin, konpromiso etiko eta solidario batetik harreman pertsonalak sortuz, haien gaitasunak eta ongizate emozionala indartuz.

Bi pertsonen arteko loturak laguntza naturalen sarea hobetzen du, eta desgaitasuna duen pertsonak harreman sozial esanguratsuak izatea errazten du, beste pertsona batzuekin dituenak ez bezalakoak.

2020an, pandemiaren ondorioz, bisiten murrizketen ondorioz, boluntarioen jarduera, telefono edo bitarteko telematikoen bidez egin da. 2020ko abenduaren 31n, 44 boluntario genituen.

PERTSONA BOLUNTARIOAK



2020ko mugarri nagusiak

Egoitza Berria

2020ko mugarri nabarmenetakoena, VISESarekin (Eusko Jaurlaritzaren etxebizitzaren sozietate publikoa) kontratu bat sinatu eta lokala erosteara izan da. Aurrerantzean, Babes Fundazioaren egoitza berria Amara auzoko Morlans pasealekuko 12-14 behean egongo da.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren EPEan parte hartzea

Atzegi Babes Fundazioak tutelatzen dituen 5 pertsona aurkeztu ziren Gipuzkoako Foru Aldundiaren EPEren azterketara eta guztiek, gainditu dute lehen proba idatzia.

Espainiako Babes Fundazioen elkarteko (AEFT) Babes Fundazioen arduradunen XIV. jardunaldia

Babes Fundazioak, parte hartu du beste behin Espainiako Babes Fundazioen elkarteko (AEFT), arduradunen jardunaldian. Jardunaldi horretan, desgaitasun intelektuala duten pertsonen, gaitasun juridikoaren inguruko lege proiektuari buruz eztabaidatu zen, baita honek etorkizunean Babes Fundazioetan izango duen aldaketei buruz ere.

Plena Inclusión Euskadi elkarteko kalitate-konpromisoaren etaparekin amaitzea

2020an amaitu du Atzegi Babes Fundazioak, Plena Inclusión Euskadirekin batera hasitako kalitate-konpromisoaren etapa.

Datu ekonomikoak

Ekonomiaren arloan, urte konplexua izan da, baina emaitza orekatuarekin itxi ahal izan dugu ekonomia-ekitaldia. Gipuzkoako Foru Aldundiko, Gizarte politiketako Sailak emandako laguntza ekonomikoa nabarmendu behar da, oso garrantzitsua izan baita Babes Fundazioaren egitura mantendu eta gure Fundazioko pertsonek behar dituzten laguntzak eman ahal izateko.

+ DIRU-SARRERAK			- GASTUAK		
	2020	2019		2020	2019
TUTORETZA JAR-DUERAGATIKAKO DIRU SARRERAK	491.500,79 €	421.511,19 €	Pertsonal gastuak	394.873,63 €	325.423,00 €
Gipuzkoako Foru Aldundia	425.058,53 €	366.732,00 €			
Zerbitzu prestazioa	59.667,26 €	48.435,19 €			
Ustiapenerako diru-laguntza, dohaintzak eta legatuak	6.775,00 €	6.344,00 €			
USTIAPENEO BESTE DIRU-SARRERA BATZUK	25.340,32 €	32.266,00 €	Ustiapeneko beste gastu batzuk	117.547,78 €	113.913,00 €
Errentamenduagatikako diru-sarrerak	23.465,52 €	21.258,50 €			
Zerbitzu desberdinengatikako diru-sarrerak	1.874,80 €	11.007,50 €			
	516.841,11 €	453.777,19 €		512.421,41 €	439.336,00 €

	2020	2019
USTIAPENAREN EMAITZA	4.419,70 €	13.377,19 €
FINANTZA EMAITZA	-6.787,68 €	11.917,97 €
EKITALDIKO EMAITZA	-2.367,98 €	25.295,16 €

ESKU HARTZEAREN MAPA GIPIZKOAN

- ✓ Fundazioari laguntzen dioten boluntarioak.
- ✓ Fundaziotik laguntza ematen diegun pertsonak.



Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika sailarekin hitzartutako zerbitzua.



ERAKUNDE FUNDATZAILEA



ADIMEN DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ALDEKO ELKARTEA